

KODE ETIKOA Aranzadi-Munizipalista 2019

Gauzak aldatzeko helburua duen udal hautagaitza honek haustura programa sinesgarria ez ezik, herritarrei instituzioak eta politikariak kontrolatzeko tresnak ere eskaini behar dizkie. Jende ona aukeratzeko metodo bat ez ezik, bere lana ongi betetzen ez duena berehala botatzeko tresna ere eskaini behar du. Kode etiko honek ideia hori irudikatu nahi du, gure ordezkari politikoak, behingoz, herritarren esanari men eginez agintzeko gai izan daitezen. Horretarako:

- Kode Etikoa nahitaez bete behar da. Bai batzordeak, bai kargu publikoek, izendapen librekoek, eta baita hautagaitzak kontratatutako langileek ere.
- Kargu publikoen agintaldia legegintzaldi batekoa izanen da gehienez. Hala ere, bi legegintzaldikoa izan ahalko da batzordeak berariaz balioetsiz gero.
- Hautatutako edozein pertsona edozein momentutan baliogabeta izan ahalko da eta horretarako "Hautetsiak baliogabetzeko protokoloa" aktibatuko da.
- Hautagaitzen primarioetara aurkeztutako pertsonen feminismoan formatzeko konpromisoa hartuko dute, modu espezifikoan generoaren arabera.
- Kargu publikoen soldata, izendapen librekoena eta kontratatutako langileena, hilabeteko 1500 euro garbiraino irits daitezkeen 14 ordainsarikoa izanen da (udal gobernuan dagoen ala ez). Soldata-konpromisazioa azter daiteke, esaterako, euren kargu langileak dituztenentzat, edo zailtasun ekonomikoko beste edozein egoeratan.
- Kargu publikoek, izendapen librekoek eta kontratatutako langileek uko egiten diote dietak eta euren karguari lotutako lan gisa jaso dezaketen edozein ordainsari kobratzeari. Erakunde publikoetako Administrazio-Kontseiluan egoteagatik erator daitezkeen soldata edo ordainsariak kobratzeari uko egiten diote, bere jatorria edozein delarik ere. Enpresa, erakunde publiko edo erdipublikoen bileretara bertaratzeagatik jasotako dietak deuseztatzeko konpromisoa hartuko du hautagaitzak. Hau posible ez denean, hautagaiek dieta horiek kobratzeari uko egiten diote.

- Ardura. Dietak eta “denbora partzialeko zinegotzi”-aren figura deuseztatuko dira. Hautetsiek honakoak izan ahalko dira: ardura publikoko zinegotzi, eta, beraz, euren aurreko lanbideei eta udalaren edo edozein enpresaren diru-sarrereri uko egin, edo soldatarik gabeko zinegotzi, hortaz, udaletik euro bakar bat ere ez dute jasoko (ez dieta ez ezer).
- Kargu publikoek, izendapen librekoek eta kontratatutako langileek euren lanaldia eskusiboa izan dadin konpromisoa hartuko dute (lanaldi osokoak izanez gero), eta beste lanik ezin izanen dute mantendu.
- Lanak soldatapean jartzeari dagokionez, lan taldeak eta lanaren banatzea sustatuko dira.
- Udal hautagaitzak hala eskatzen duten hiritarrak artatzeko konpromisoa hartuko du, inongo elkarterik ordezkatzan ez dutenean ere. Hautetsiak hiritarrei irekitako batzar batean hilero kontu emateko konpromisoa hartuko du.
- Udal hautagaitzak kotxe ofizialak, segurtasun-langileak (ohiz kanpoko egoeretan izan ezik), aparkaleku bereziak eta karguak dakartzan beste edozein abantaila erabiltzeari uko egingen dio.
- Kargu publikoek ustelkeria delitu edo faltengatik kondenatuak izanez gero karguari edo edozein ardurari uko egiteko konpromisoa hartuko dute. Ikertua izanez gero, bere postua batzarrak berretsi beharko du.
- Boz askatasuna. Kargu publikoek batzordeak erabakitakoa bozkatu beharko dute, kontrakoa eskatu eta batzordeak onartu, edo batzordeak boz askatasuna eman ezean.
- Banku kredituei modu esplizituan uko egingen zaie. Hautagaitza hiritarren ekarpenekin baino ez da mantenduko, kuota edo mikro-mezenasgoen bidez.
- Ate birakariak. Hautetsi guztiek, gutxienez 5 urtetan, izandako karguaren eginkizunetan eurek sortu, kudeatu edo ikuskatutako enpresetan zuzendaritza posturik ez izateko konpromisoa hartuko dute (aurreko lanera itzultzen diren kasuetan izan ezik).
- Kontseilariak eta izendapen libreko karguak. Udaleko izendapen libreko karguak, azken finean, kargu politikoak direla uste dugu, beraz, kode etikoa bere osotasunean onartuko dute eta, batez

ere, soldatari dagokionez. Merituen arabera hautatuko dira eta ekimenaren batzordeak berretsi beharko ditu.

- Urteko ondarearen aitorpena. Hautetsiak urtero bere ondarea argitaratzeko konpromisoa hartuko du eta, horrez gain, kontu-ikuskapen herritarrak egiteko beharrezko datuak emanen ditu.
- Agenda publikoa. Hautetsiak agenda ofiziala argitaratzeko eta bilera, pleno, batzorde, eta abarren berri emateko konpromisoa hartuko du.
- Artekaitza. Batzordeko kideek gatazka edo liskarren elkarrizketa bidezko konponbidean artekaitza sistemak proposatu eta hauei men egiteko konpromisoa hartuko dute, liskar hauek hiritar, hautagaitza kide, funtzionario eta administrazioko langile edo beste zinegotzietakoak direlarik ere.
- Hautagaiak ordezkari publiko kargua duin egiteko konpromisoa hartuko du. Etekin politiko edo pertsonala lortzeko helburuarekin egindako azpijokoak, errealitatearen interpretazio faltsu eta interesatuak eta funtsik gabeko salaketak saihestuko ditu. Karguan jarduteko bere gaitasuna edo duintasuna zalantzan jar dezaketen salaketa oinarridunak jasoz gero, azalpen publikoak eman beharko ditu.
- Euskara. Kargu publikoak euskara ikasi eta babesteko ahaleginak egiteko konpromisoa hartuko du, Iruñeko hiritar askoren hizkuntza baita.